

AEBko giza genetikaren elkarreak barkamena eskatu du historian izandako jokabidearengatik

ASHG AEBko giza genetikaren elkarreak adierazpen bat kaleratu du barkamena eskatuz historian izandako jokabide diskriminatzaile eta eugenesisoengatik, eta etorkizunean modu bidezkoan eta ekitatiboan aritzeko printzipioak azalduz.

ASHGk onartu du ezen, iraganean, ikerketa genetiko batzuk AEBko mugimendu eugenesisoaren parte izan direla, eta balio izan dutela jarrera diskriminatzaileak sustatzeko zenbait etnia, jatorri, ideologia edo joera sexu-afektibotako pertsonen aurka. Halaber, aitortu du berandu ibili dela elkarrearen balioetan eta egitasmoetan ekitatea, dibertsitatea eta inklusibitatea sartzeko, eta aukera galdu duela komunitate jakin batzuei buruzko komunikazio okerra eta bidegabea ezeztatzeko.

Nolanahi ere, ASHGk uste du ikerketa genetiko oso lagungarria izan daitekeela zientzian, osasunean eta gizartean aurreratzeko. Eta zenbait konpromiso hartu ditu, batzuk berehalakoak eta besteak aurrera begirakoak, etorkizunean ekitatiboa eta



American Society of Human Genetics

bidezkoa izan dadin. Lehenik, iraganeko akats eta hutsuneei buruzko txostena gizarteratu du. Horrez gain, egitasmo eta programa guztietan kontuan hartuko ditu balio horiek, jokabide okerrik ez gertatzea zainduko du, eta bazterkeria jasan duten komunitateetako zientzialarien parte-hartzea sustatuko du. Azkenik, lider egokiak bultzatuko ditu, eta mugimendu eugenesisoan parte hartu duten genetikariei kendu egingo dizkie iraganean ASHGk emandako izendapenak eta aitortzak.

Aurrera begira, dei egiten diete ikerketa genetikoan parte hartzen duten norbanako, erakunde eta enpresa guztiei berariaz egin dezatela ikerketa bidezko eta ekitatiboaren alde eta jokabide okerraren aurka. Besteak beste, ikertzaile hasiberriei balio horiek transmititu diezazkietela, komunikazio arduratsua bultzatu, jokabide okerrak salatu...

Bukatzeko, ASHGk berretsi du ikerketa genetikoan onuragarria dela gizartearentzat, eta aintzat hartuko duela eta goretsiko duela giza dibertsitatea. ●